

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Goikuri SLri jakinaraztea alkatearen irailaren 30eko 189/2016 Ebazpena

Bat etorri azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.5 artikuluan xedatutakoarekin, bi aldiz saiakera egin arren bere helbide ezagunean ezin izan zaionez interesdunari jakinarazi posta arruntez jaso izanarekin, tartean egon ez delarik udal honi egotz dakioken arrazoirik, jakinarazpena egingo da iragarkia BOEn eta ALHAOn argitaratuz eta haren azken helbideko udaleko iragarki oholean jarri.

Halaber, eta lege beraren 61. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, ikusita iragarki bidez jakinarazteak edo egintza argitaratzeak kalte egin diezaiekeela bidezko eskubide edo interesei, interesdunak Donemiliagako udalean Andia kalea, 9, Erdoña agertu ahal izango dira 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, izenburuan eta espedienteko agirietan aipatzen den egintzaren eduki osoaren berri izateko eta haren jakitun direla jasota gera dadin. Horretarako, hamabost egun izango dituzte, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunei ohartarazten zaie aipatutako epean agertu ezean, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko dela legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hartzailea: Goikuri SL

Ebazpenaren data: alkatearen irailaren 30eko 189/2016 Ebazpena.

Ebazpenaren edukia:

“Zerrendatzen diren jabeei eskatzea ordain dezatela ordaintzeke dagoen behin betiko zenbatekoa, hots, hamar mila laurehun eta hogeita hemeretzi euro eta berrogeita hamaika zentimo (10.439,51 euro), Okarizko 2 poligonoko 245 lurzati urbanizazio obrak subsidiarioki egin direlako. Diru hori udal honi ordaindu beharko zaio, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen, 98.3 artikuluan eta ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskal Herriko lurzoru eta hirigintzarenaren, 203.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri. Jabe bakoitzak bere partaidetza kuotaren arabera ordaindu beharko du.

2. Goikuri SL enpresak, lurzatiaren azalera guztiaren ehuneko 52,09 partaidetza kuota izanik, zazpi mila hirurehun eta hogeita zazpi euro eta hirurogeita hamazazpi zentimo (7.327,77 euro) ordaindu beharko ditu.

Bigarrena. Obren behin betiko likidazioa ordaintzeko hilabete izango da, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Udalaren hauetako konturen batean ordainduko da: kutxabank: ES35 2095 3234 11 1095223904, Laboral Kutxa: ES80 3035 0051 14 0511031416.

Hirugarrena. Borondatezko epean ordaindu ezean, zorpeko ziurtagiria egin eta premiamendu bidean kobratuko da.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2016ko azaroaren 17a

Alkatea

DAVID LOPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO